

Gizateako gizarteratzeko eta laneratzeko
enpresa bazkideendako orientabide etikoak
eta praktikoak biltzen dituen gida



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkartea

Argitalpenaren laguntzailea:



Gizateako gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa bazkideendako orientabide etikoak eta praktikoak biltzen dituen gida

2009ko abendua

Gizatea

Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco

Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte

Ekain Kobak 3, 1 • 48005 Bilbo

Tel.: 944 160 566 • Faxe: 944 156 319

gizatea@gizatea.net

www.gizatea.net

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Institutua


Inprimaketa: Lankopi, S.A.



Aitortu-Ez merkataritzarako-Lan eratorririk gabe 3.0

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta. Baimen osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/deed.eu>



Zertarako behar du gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa batek Etika kodea?

Gida honen bidez, orientabide batzuk eman nahi dizkizugu, batetik, argi jakin dezazun Etika kodeak zenbateko balioa eta irismena duen gizarteratzeko eta laneratzeko arloan aritzen den gure enpresarentzat, eta, bestetik, garbi izan ditzazun zein diren enpresa hau osatzen dugunok, geure harremanetan eta jardueretan, beti aintzat hartu beharko ditugun bete-beharrak.

Azken batean, hauxe lortu nahi dugu: benetan gauzatu nahi ditugu Gizatea elkarteari loturik dauden gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek duten lan-moldea zehazten duten balioak.

Horretarako, lehenik, ohar labur bat egingo dizugu, Etika kodea zer den eta haren helburuak zein diren jakin ditzazun. Gure ustez, guztiz garrantzikoa da gure helburuen oinarrian dauden balioak argi zehaztea, balio horien bidez nahi baitugu geure burua ezagutzera ematea eta besteen onarpena jasotzea. Balio horiek gida honetako bigarren atalean aurkituko dituzu. Azkenik, Etika kodean jasota dauden orientabide praktiko batzuk bildu ditugu. Horiek bereziki zuzenduta daude gizarteratzeko eta laneratzeko enpresekin lanbide aldetik lotura duten pertsoneri.

Gida honek tresna baliagarria, ezaguna eta erabilgarria izan nahi du. Horrenbestez, tresna honek laguntza emango digu gure erakundearen ditugun helburuak lortzeko, eta, era berean, alde batera uzteko gure lan egiteko moldearen aurka doazen edo molde hori zailtzen duten jarduerak edo jokabideak. Azken batean, tresna baliagarria izango da, gure jarduerak bete eta harremanak izan bitartean, jardunbide egokiak indartu ahal izateko.

Gure Etika kodearen helburuak eta irismena

Gizatea elkartea bultzatzen duen Etika kodea bereziki zuzenduta dago Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarteari, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresei eta haien erakunde sustatzaileei. Hau ez da arau-multzotzat, egoera guztietan nola jokatu behar dugun aginduko diguna. Kode honek balioak, estiloko osagaiak eta arauak ematen ditu, horiek guztiak gida baten modukoak izan baitaitezke, Gizatea elkarterako aktore eta egitura desberdinen jokabideari eta, orobat, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen jokabideari begira.

Kodean ez da zehaztuko zein balio, estiloko osagai edo arau diren garrantzitsuenak, ez eta zeintzuek duten lehentasun gehiago, beste batzuekin gatazkan hasten direnean. Hala, bada, Kodea oinarritzat hartuko dugu, eta lagungarria izango zaigu, informazio egokian oinarritutako epaiei helduta, erabakiak hartzeko, batez ere izaera etikoko arazoren bat sortzen denean.

Kodea Gizatea elkartean nola-halako erantzukizun-motaren bat duten pertsona guztiei ezarriko zaie, bai eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan eta enpresa ho-

rien erakunde sustatzaileetan erantzukizunen bat dutenei ere, pertsona horiek berez jokatzten duten zeregina edo betetzen duten tokia edozein delarik ere.

Honako helburu hauek izango ditu:

a. Gizatea elkarreak dituen balio nagusiak laburbilduko ditu, eta arau etikoen multzo bat finkatuko du; arau horiek gida baten modukoak izango dira gizarteratzeko eta laneratzeko enprekin lotura duten aktore eta eragile guztien jarduerari eta harremanei begira.

b. Argi zehaztuko du Gizatea elkarrearen jardueraren oinarrian dagoen estiloa, eta, hortaz, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa elkartuen estiloa ere bai.

c. Ziurgabetasun etikoak daudenean, lagungarria izango da benetan garrantzitsuak diren aukerak zehazteko.


d. Arau etikoak finkatuko ditu, eta, horietan oinarrituta, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkie Gizatea elkar-teko pertsonari edo organoei.

e. Lagungarria izango da elkarrearen helburua, balioak eta arau etikoak Gizatea elkarrean jarduerak egiten hasten diren gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen artean hedatzeko.

f. Gizatea elkarrearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa elkartuen kalitatea bultzatuko du, eta motibazio gehiago piztuko du enpresa horietan guztietan lanbide aldetik zereginak era egokian betetzeko.

g. Funtsezko eragilea izango da partaide izateko zentzua areago errotzeko eta sustraitzeko.

h. Bera izango da oinarria, haren gainean eraikiko baita Batzorde Etikoa, hau da, Gizatea elkarrean instituzionalizazio-prozesua egiteko eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa elkartuen artean sustatzeko lanaren ardura hartuko duena.





Gure lan-moldea zehazten duten oinarri eta balio nagusiak

Oinarri hauekin egiten dugu bat

→ Berdintasuna

Gizatea elkartearen Etikako kodearen barruan, berdintasunak zera esan nahi du: eraginkortasunez errespetatu beharko dela gizaki guztiak berez direla baliozkoak, ezin direla manipulatu, gizakiak gai baitira autonomiaz ekimenak egiteko, eta horrek eskubidea ematen baitie beren gaitasunak era egokian garatzeko.

→ Gizarteratzea

Gizatea elkartearen Etika kodearen barruan, lanean gizarteratzeak hauxe esan nahi du: lan arrunt bat lortzeko, denok aukera berdinak izatea. Batez ere, gizarte- eta lan-

arloko baldintzei dago loturik, eta lan-arloan lana lortzeko aukera-berdintasuna sortzeko dauden moldeei ere bai.

→ Gizarte eraldaketa

Gizarte bidezkoago bat lortzeko ari gara lanean, eta, ildo horretan, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak sustatzen ditugu, enpresa horiek tresna egokiak baitira gizartean eta lan-arloan dagoen bazterkeriari aurka egiteko, eta lan arrunt bat eskuratzeko baldintzak finkatzeko. Lan hori egitean, ekonomia solidario eta alternatiboari buruzko ikuspegia dugu gogoan; eta, batez ere, aintzat hartzen ditugu ekonomia-mota hori gizartean bultzatzen duten ekimenak, hain zuzen ere, gure gizartean bereizkeria sortzen dituzten egiturak eraldatzeko xede duten ekimen horiek.

Gizatea elkarteari lotutako gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek nabarmen erakutsi nahi ditugun balioak

→ Kalitatea

Kalitate etikoa lortu nahi dugu, gizarteratzeko eta laneratzeko arloan aritzen diren enpresek zerbitzu bikaina egin. Geure burua ezagutzera eman nahi dugu, kudeatzelanean lortzen dugun kalitateari esker, eta, horretarako, etengabe egin nahi dugu hoberantz gizarteratzeko eta la-

neratzeko aritzen diren enpresek sustatzen dituzten prozesu guztietan (harremanetan eta antolakuntzan).

→ Parte-hartzea

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan parte hartzeko prozesua errazten dugu, aholkuen bidez eta erabakiak

hartzeko bideak baliatuz (ebaluazioak, batzarrak, lan-taldeak eta abar); era berean, erabakiak hartzeko prozesuetan engaiatzen gara, erabakiak hartzean ahalik eta horizontaltasun handiena egon dadin.

→ Gardentasuna

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen bidez, gardentasunez jardun nahi dugu lanean, argi erakusteko ekonomia solidarioaren alde dugun konpromisoa. Era berean, gardentasunak aukera emango digu aldiari behin gure kudeatze-lanaren berri emateko, gure jarduerekin, antolatzen ditugun irizpideekin eta horien emaitzekin zerikusia duten auziei buruz.

→ Irabazi asmorik eza

Ekimen solidarioak gara, eta, beraz, gure helburu nagusia giza eta gizarte-arloko gaiak sustatzea da.

→ Erantzukidetasuna

Gizatea elkarteari lotuta dauden eragile guztiek eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresek erantzukizuna bere gain har dezaten lortu nahi dugu. Orobat, behar den oreka lortu nahi dugu alde guztiek dituzten eskubideen eta betebeharren artean. Beharrezkoagoak diren mailetan, erantzukizunak denek artean banatu nahi ditugu, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen xedea garatzeko lanetan engaiatuta dauden talde guztiak barne hartuta.

→ Aukera berdintasuna

Ondo dakigu zenbait neurri bereizle hartu behar direla, hartara, gainerakoekin erkatuta desabantaila argiko egoeran dauden, bereizkeria jasaten duten, egoera ahulean

dauden edo erasotzen errazak diren pertsonen aukera berdinarik izan ditzaten gizarte- eta lan-esparruan parte hartzeko. Izan ere, pertsona batzuk horrelako egoeretan daude, kontrolaezinak diren arrazoen ondorioz –naturaren zoria edo gizarteko halabeharra dela-eta–.

→ Genero berdintasuna

Argi onartzen dugu lan-arloan bereizketa nabarmena dagoela, eta banaketa hori gizonen eta emakumeen artean izan den gizarteratze desberdinen eta bereizkeriaren ondorioa dela. Gainera, gure ustez, behar-beharrezkoa da une oro kontuan izatea emakumeek eta gizonen egoera, baldintza, helburu eta beharrezko desberdinak dituztela. Horretarako, helburu eta jarduerak berezi batzuk proposatu ditugu, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan dagoen bereizkeria ezabatze aldera.

→ Lankidetzak

Autonomiaz lan egiten dugu, eta ahalegina egiten dugu, lehia bultzatu beharrean, lankidetzak sustatzeko. Gizatea elkarteari antolakuntzako esparruaren barnean eta kanpoan, batez ere gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan. Orobat, ahaleginak egiten ditugu beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan aritzeko.

Lanean jarduten dugu lankidetzan oinarritutako molde berezi bati jarraiki, eta, hala, lankidetzak bultzatzeaz gain, lehia ez aritzeko xedea sustatzen dugu. Izan ere, ideia horiek funtsezkoak dira gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen arteko harremanetan.

→ Pertsonalizazioa

Gizatea elkarteari eta gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen ardatza pertsonak dira. Gure jardueraren xedea,

azken batean, hauxe da: lan-merkatu arruntean zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratzea, pertsona horien bereizgarriak errespetatuta, hau da, talde generiko bateko kideak edo abstrakzioak balira bezala hartu gabe. Hala, bada, haien beharizan bereziak eta bereizgarriak hartuko ditugu aintzat, eta une oro bermatuko dugu haietako bakoitzak neurrira egokitutako erantzunak jasotzeko dituen eskubideak, laguntza emateko prozesu bati jarraiki.

➔ Iraunkortasuna


Iraunkortasun ekonomikoa (bideragarritasuna): geure erantzukizunen artean, besteak beste, baldintza egokiak sortu behar ditugu geure ekimenen bideragarritasuna eta jarraipena lortzeko, eta, era horretan, lan-arloan dagoen bereizkeriari aurre egiteko xede duten egiturak eta baliabideak sendotzea bermatzeko. Gure ustez, gizarteko gainerako alderdiekin hartzen dugun erantzukizunen artean, funtsezkoa da enpresa-arloko proiektu sendoak eraikitzea, egoki kudeatutako proiektuak, denboran barrena gure jarduerak sendotzeko aukera emango digutenak.

Ingurumen aldeko iraunkortasuna: Gutun solidarioan sinatutako konpromisoari jarraiki, bultzada emango diegu

ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duten ekintzei, produktuei eta ekoizpen-moldeei. Ingurumen aldeko iraunkortasun hori barneko funtzionamenduan eta kanpoaldean ere azalduko da, ingurumen aldeko iraunkortasuna sustatzen duten proiektuei laguntza emango baitiegu eta konpromisoa hartuko baitugu haiekin.

➔ Ingurunearekiko konpromisoa

Gizatea eta gizarteratzeko eta laneratzeko arloan aritzen diren enpresek konpromisoa hartua dugu aldamenean dugun gizarte-ingurunearekin. Horrenbestez, lankidetzan aritu behar dugu beste erakunde batzuekin, eta sareetan parte hartu behar dugu, era horretan, esperientzia solidario zehatzak garatu ahal izateko, eta, hortaz, hautabidezko gizarte- eta ekonomia-eredu bat sortu ahal izateko. Gizartean dauden erabakitze-guneetan egon nahi dugu, bai eta gure gizartearen ekonomia- eta enpresa-arloko bilbean ere. Hortaz, parte hartzeko gogoia eta nahia dugu, ekonomia egiteko dauden beste molde batzuk finkatzeko il-dotik aurrera egin nahi duten proiektu erabakigarrietan aritzeko, era horretan lan-esparruan eskubideen kultura garatzea lortuko baitugu.



Balio horiek benetan gauzatzeko beteko ditugun konpromisoak

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen kudeaketaz arduratzen garen pertsonak garen aldetik, jendeak zer espero du gugandik?

→ Kalitatea

- Kudeaketa estrategikoa eta kalitatezkoa garatu ahal izateko, Gizatea elkarteari lotuta dauden gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen bereizgarriak diren baliok hartu behar ditugu ardatz gisa.
- Gure erakundea erantzukizunez kudeatu behar dugu, bai eta gaitasunez ere, eraginkortasun eta kalitatezko oinarriak ezarriz, helburu nagusia lortzeko betekizun gisa.
- Behar diren baliabideak jarri behar ditugu kalitateko plana gauzatu ahal izateko, eta laguntza eman behar dugu langileen jokabide onuragarriak sustatzeko, balioren izaera berritzaileak sorraraz ditzakeen zailtasunak gutxitze aldera.
- Kudeaketan eraginkortasuna eta efikazia lortu behar ditugu, irtenbideak aurkitu behar ditugu egoera zailetan, eta zentzuzko arrazoiak hartu behar ditugu aintzat erabakiak hartzerakoan.

→ Parte-hartzea

- Kudeatze-arloan erantzukizuna dugun pertsonak garen aldetik, Gizatea elkartean parte hartuko dugu, gure erakundea elkarte horretan sartuta baitago, eta, hortaz, jarduera hauek egingo ditugu:

- Antolatzen diren batzar eta gainerako ekitaldietara joango gara, eta eraginkortasunez parte hartuko dugu lan-taldeetan.
- Geure erantzukizuneko erabakiak hartuko ditugu, informazio aski eta fidagarria lortu ondoren.
- Behar den arreta egingo diogu Gizatea elkarteko gobernuko organoek eskaintzen duten informazioari, eta argibideak eskatuko ditugu, hala behar dugunean, geure erantzukizunak hobeto baliatu ahal izan ditzagun.
- Lankidetzan arituko gara Gizatea elkartearen jardueretan, eta laguntza emango dugu haren helburuak betetzeko.
- Gure erakundearen jokabidearen bidez bultzada emango diogu Gizatea elkarteak duen izen onari eta ospeari.
- Gizatea elkarteko gobernuko organoetara elkarrekin interesekoak izan daitezkeen auzien berri emango diegu, bereziki gobernuko organoek albiste horien berri zuzen ez jasotzea gertatu ahal bada, eta guk albiste horiek zabaltzeko eta ezagutzera emateko eskaera egin ahal badugu.
- Gizatea elkarteak gobernuko organoetan eta elkarrekin laguntzako taldeetan aritzeko eskatzen dizki-

gun erantzukizunak gure gain hartzeko prest gaude-
la adieraziko dugu eta laguntza emango dugu.

- Gure prestutasunaren bidez, laguntza emango dugu Gizatea elkarteko gobernuko organoetan ordezkaritzak genero-ikuspegitik orekatuta egon daitezen.
 - Finkatuta dauden kuota ekonomikoak ordainduko ditugu, bai eta, Estatutuei jarraiki, gure erakundeari dagozkion derramak eta ekarpenak ere.
- Kontratatutako langile guztien eskubideak onartuko ditugu, eta, orobat, laguntza emango dugu gure erakundeak eta Gizatea elkarrekin antolatzen dituen jardueretan parte har dezaten: batzarretan, ekitaldietan, eta, bereziki, haiekin zuzeneko zerikusia duten gaitan. Nolanahi ere, aukera hori emango dugu, kontratatutako langileek hautatzeko duten askatasuna errespetatuz, hartara, haien parte-hartze mailak eraginik izan ez dezan haien lanbide-erloto garapenean.
- Kexak eta iradokizunak jartzeko sistema eraginkorra egon dadin bermatuko dugu, hala langileentzat nola bezeroentzat.
- Langileekin dugun harremanaren oinarrian, haien autonomiarekiko errespetua egongo da beti, eta une oro saiaturako gara parte har dezaten, behar den informazioa izanda. Horretarako, behar den informazio garbena eta egokia emango diegu, eta ez da inolako bereizkeriarik egingo sexua, ideologia edo antzeko beste arrazoiren bat dela-eta.
- Hautatze-prozesuak zainduko ditugu, parte-hartzea eta erabaki arduratsuak bultzatzeko, eta, halaber, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen barruan pertsona edo talde batzuk abantailarik izan ez dezaten bermatzeko.

→ Gardentasuna

- Kontratatutako langileei kudeatze-lan gardena eta zintzoa bermatuko diegu, eta gure erakundearen helburu nagusiarekin bat datorren eta kalitatezkoa den lan zintzoa ere bai.

→ Irabazi asmorik eza

- Gure erakundea kudeatuko dugu funtzionaltasunari eta ekonomiari lotutako irizpideak aintzat hartuta, gure helburuak lortzeko erabiltzen dugun edozein baliabide erabilia.
- Hirugarren batzuen aurrean, behar bezala bermatuko dugu gure erakundeak irabazi asmorik ez duela.
- Ez dugu eraginik izango kanpoko hornitzaileak hautatzeko prozeduran, norberari dagozkion arrazoiak tartean nahastuz; eta, era berean, ez dugu onurarik aterako geure buruarentzat hornitzaileen eta erakundearen arteko harreman horretatik.
- Hornitzaileak hautatzerakoan, bereizketa positiboa egingo dugu, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen alde, eta, era berean, Gizatea elkarteko oinarriekin eta balioekin bat egiten duten beste erakunde batzuen alde.
- Koherentziaz, zuhurtziaz eta soiltasunez jokatuko dugu, gure erakundearen jardueran eta harremanetan.

→ Bideragarritasuna

- Gure kudeaketaren bidez, gai izango gara ganorazkoa eta bideragarria den eta ekonomia aldetik iraunkorra den proiektu bat sendotzeko, kudeaketa indartsua duen eta gure erakundearen jarduerak finkatzeko laguntza emango digun proiektua.

➔ Erantzukidetasuna

- Arduratsuak izango gara, eta une oro bilatuko dugu gure erakundearen helburu nagusia lortzea eta garatzea.
- Gure ekintzak behar bezala bideratuko ditugu, hartara, ingurunea lagungarria izan dadin gizarteratzeko prozesuetan sartuta dauden pertsonen gaitasunak sustatzeko, eta lanpostuan bete behar duten zeregina betetzeko.
- Zabalik egongo gara gizarteratzeko prozesuan dauden pertsona guztiak barne hartzeko, batez ere, baldintza pertsonalak edo bestelako baldintzak direla-eta, babes-gabetasuneko egoera gehien nozitzen duten horiek.
- Behar diren protokoloak sortuko ditugu, langileak kontratatuzeko prozesuak arautzeko, argitasuna, gardentasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko, eta, betiere, kutunkiari kasuak baztertzeko.
- Behar diren baliabideak emango ditugu, langileek ahalik eta hobekien bete ditzaten beren kontratuei jarraiki egin behar dituzten zereginak. Kontratatutako langileak autonomiaz hartuko ditugu, eta, hala, beren adierazpen-askatasuna erraztuko dugu, hautatzeko duten gaitasuna ere bai, erabakiak hartu ahal izango dituzte informazio egokia jaso ondoren, eta, halaber, independentzia eta autodeterminazioa izango dituzte lanean.
- Gure erakundearen kontratatutako langileen autonomia eta haien erantzukizuna errespetatuko ditugu.
- Administrazioarekin ditugun harremanetan, lankidetzan arituko gara harekin eta, hala behar denean, laguntza emango dugu informazioa elkarri trukatzeko, baina, une oro, erabakitze eta jarduerak egiteko dugun autonomia errespetatuz.
- Ez ditugu gure alde erabiliko gure erakundearen administrazioekin edo beste erakunde publiko edota pribatu

batzuekin lankidetzan aritzean eta harremanak izatean sor daitezkeen abantailako egoerak.

- Kontratatutako langileen aukera-berdintasuna errespetatuko dugu, hala lanera sartzerakoan, lanbide-prestakuntzan eta -sustapenean, nola lan-baldintzetan; ildo horretan, ekintza positiboko neurriak hartuko ditugu, eta haiekin ditugun harremanetan eta baliabideak eskuratzeko aukera ematean berdintasuneko tratua eta inpartzialtasuna izango dela bermatuko dugu.
- Baterako erantzukizunaz jokatuko dugu kontratatutako langileekin, eta, era horretan, argi erakutsiko dugu gure erakundearen helburua gara ditzaten haiengan dugun konfiantza eta ematen diegun laguntza, erakundearen kudeatzeko konpromiso gisa. Kontratatutako langileekin izango dugun kudeatze-lana eraginkorra izango da, eta lankidetzan arituko gara irtenbideak aurkitzeko eta erabakiak zentzuzko eran hartzeko.

➔ Aukera berdintasuna

- Langileen intimitatea eta aniztasuna errespetatuko ditugu. Haiekin izango dugun tratua begirunezkoa izango da, begirunez jokatuko baitugu pertsona haiekin eta egiten duten lanarekin, eta ondo bermatuko baitugu gure esku geratzen diren datuen konfidentzialtasuna.
- Ez dugu bereizkeriaz jokatuko kontratatutako langileekin; aitzitik, langileak diren aldetik dituzten eskubiak onartuko ditugu.

➔ Genero berdintasuna

- Neurriak hartuko ditugu familiako bizitza eta prestakuntza eta laneko bizitza bateragarriago egiteko.
- Oreka bilatuko dugu emakumeen eta gizonen lanbide-taldeetan.

→ Lanpostuak zehazterakoan, bazter utziko ditugu sexu jakin baterako egokitzat edo ez-egokitzat jotzen diren nabardura guztiak.

→ Lankidetzatza

→ Erakundeak gizarteratzeko eta laneratzeko beste enpresa batzuekin eta, orobat, Administrazioarekin sarean egiten duen lana bultzatuko dugu.

→ Pertsonalizazioa

→ Ondo zainduko dugu enpresetan gizarteratzeko eta laneratzeko plaza betetzen duten pertsonen prozesuetan jasota dauden baldintzak beteko direla. Halaber, ahalegina egingo dugu pertsona horiek izan ditzaketen gaitasunak susta ditzaten, eta laguntza emango dugu gaitasun berriak garatu ahal izan ditzaten.

→ Gizarteratzeko eta laneratzeko plaza betetzen duten pertsonen desberdintasuna errespetatuko dela ber-

matuko dugu, eta, hartara, begirunezko tratua emango diegu, haien intimitatea zurrin gordeko dugu, eta konfidentzialtasun zorrotzez gordeko dugu erabiltzaile guztiei buruz eskura dugun informazioa.

→ Bultzada emango diegu gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan plaza betetzen duten pertsonen prozesu pertsonalen lanari.

→ Ingurunearekiko konpromisoa

→ Adi egongo gara Gizatea elkartearen proiektuaren oinarrian dauden balioak gizarterari helarazteko egon daitezkeen aukera guztiei buruz ohartzeko.

→ Behar bezala zainduko dugu gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan dauden pertsonen eskubideak onar daitezkeen, eta, era berean, gure gizarte-ingurunean parte har dezaten eta gizartean dauden oztopoak gainditu ditzaten.

Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetako langileak garen aldetik, jendeak zer espero du gugandik?

→ Kalitatea

→ Behar bezala bermatuko ditugu zerbitzuaren kalitatea, koherentzia, konfidentzialtasuna eta diskrezioa, eta, orobat, baliabideak eta bitartekoak zentzuz erabiliko direla.

→ Eraginkortasunez erantzungo dugu, konponbideak bilatuz eta zentzuz arrazoituz, aurrean azal daitezkeen zailtasunen aurrean.

→ Parte-hartzea

→ Gizarteratzeko eta laneratzeko esparruan plaza betetzen dugun pertsonen lanean, dagozkigun gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuen barnean, lankide eta arduradun gisa hartuak izateko dugun eskubidea baliatuko dugu, eta parte hartuko dugu elkarrekiko laguntza emateko jardueretan.

→ Erantzukidetasuna

- Baterako erantzukizunaz jokatu dugu gizarteratzeko eta laneratzeko enprekin, hau da, konfiantza erakutsiko diegu gure erakundearen helburua garatzean.
- Gardentasuna eta zintotasuna erakutsiko ditugu gure lanean.
- Ez gara gure izaeraz baliatuko antzeko esparruetan lan egiten duten erakundeekin ditugun harremanetan abantailak lortzeko, ez eta izaera publiko edo pribatukoak diren eta gure erakundearekin lankidetzan ari ziren diren beste erakunde batzuekin ere.
- Zerbitzu egiten dugun erakundeek eta Gizatea elkarrekin sustatzen dituen oinarriak eta balioak zainduko ditugu, eta lankidetzan arituko gara Etika Kodean jasota dauden jardunbideko arauak betetzerakoan.

→ Genero berdintasuna

- Berdintasunaren aldeko jarrera izango dugu, eta guztiz saihestuko ditugu emakumeek eta gizonen zeregin jakin batzuk egiteko duten balioa zalantzan jartzen duten jarrerak.

→ Lankidetzak

- Lankidetzan aritzeko jarrera izango dugu, eta irabazi asmorik ez dugula eta sarean lan egingo dugula bermatuko dugu.
- Gure erakundea kudeatzeaz arduratzen diren pertsonekin lankidetzan jardungo dugu, eta, halaber, informazio-trukea erraztuko dugu, bai eta behar den laguntza ere.
- Gure harremanen oinarriak lankidetzak, baterako erantzukizuna eta elkarrekiko errespetua izango dira.

→ Pertsonalizazioa

- Langile teknikoek eta laguntza ematen dutenek ahalik egiten gehien sustatuko dugu gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden pertsonen ekimena, eta esparru eraginkorra eta materiala sortuko dugu, haien gaitasunak lan-esparru zehatz batean garatu ahal izan ditzaten.
- Laguntza emateko prozesuen bidez, hartzaileek ahalik eta autonomia gehien lortu ahal izango dute, parte hartuko dute, eta mendekotasun-egoera gehiago sor ez dadin edo murriztu daitezten lortuko dugu.
- Langile teknikoek eta laguntza ematen dugunok gizarteratzeko eta laneratzeko banakako prozesua bultzatuko dugu, eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden pertsonen sostengua izango gara, banaka jardunez. Gure zereginak betetzeko, prozesuaren kalitatea izango dugu xedetzat, eta, horretarako, laguntza emateko dauden tresnak erabiliko ditugu, horiek aukera emango baitute prozesu hori era sistematikoan, egituratuan eta antolatuan planifikatu ahal izateko.
- Gure harremanetan aintzat hartuko dugun erreferentzia-esparrua hauxe izango da: pertsona guztiek aurrera egin ahal dutela, behar den laguntza beren alde baldin badute.
- Gizarteratzeko eta laneratzeko plaza betetzen duen langile bakoitzaren banakotasuna errespetatuko dugu, begirunez jokatu dugu haiekin, haien intimitatea zainduko dugu, eta haiei buruzko datuen konfidentzialtasuna ere bai.
- Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan gauden pertsonen argi onartuko dugu geure prozesuetako subjektu aktiboak garela, eta, beraz, gure gain hartuko ditugu geure ibilbidearen ondorioz sorraraz daitezkeen erantzukizun guztiak.